ko, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita. Hori guztia, 4/1999 Legean (hark aldatu du azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena) araututakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 2a.

Energia zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

ficación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 2003.

EL Director de Energía,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

Zk-5548

EBAZPENA, 2003ko irailaren 3koa, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena, Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 4. edizioa onartzeko ebazpena aldatzekoa.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko ekainaren 7ko Agindu bidez, igogailuen aldizkako ikuskapenak egiteko eta igogailuak mantendu eta kontserbatzeko prozedura ezarri zen.

Agindu horren 7.2 artikuluak dioenez, aldizkako ikuskapenak egiteko ardura duen erakundeak ezarritako egiaztapenak eta frogak egin beharko ditu, baita ikuskapena aldizkako ikuskapenen eskuliburuak jasotzen dituen irizpideei jarraitu ere; beraz, eta agindu hori betetze aldera, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2002ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez, Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 4. edizioa onartu zen.

Aipatu ebazpena 2003ko urtarrilaren 20ko EHAAn argitaratu zen (12 zk.) eta egoki ikusten da bertan aldaketa txiki bat egitea; hain zuzen ere, zehaztu beharko da B3 eranskina aplikagarri izango dela hainbat UNE arau armonizatuen arabera diseinatutako aparailuen kasuan ez besterik. Bide batez, eranskin bereko 8.1 b) puntuan antzemandako akats bat zuzenduko da.

Horrenbestez, Industri Segurtasunerako Zerbitzuaren proposamenez, eta igogailuen aldizkako ikuskapenak egiteko eta igogailuak mantendu eta kontserbatzeko prozedura ezartzeko Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2002ko ekainaren 7an eman zuen Aginduaren 7.2 artikuluarekin zerikusia duen azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoari jarraiki,

Nº-5548

RESOLUCIÓN de 3 de septiembre de 2003, del Director de Administración de Industria y Minas de modificación de la Resolución por la que se aprueba la edición número 4 del Manual de Inspecciones Periódicas de Ascensores.

Mediante la Orden de 7 de junio de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, se establece el procedimiento para la realización de las inspecciones periódicas de los ascensores y para el mantenimiento y conservación de los mismos.

En aplicación de la referida Orden, que en su artículo 7.2 determina que la entidad encargada de realizar la correspondiente inspección periódica deberá realizar las comprobaciones y pruebas establecidas y realizar la inspección de acuerdo con los criterios que se indican en el Manual de inspecciones periódicas aprobado por la Dirección de Administración de Industria y Minas, por Resolución de 15 de julio de 2002, del Director de Administración de Industria y Minas se aprobó la edición número 4 del Manual de Inspecciones Periódicas de Ascensores.

Publicada la referida resolución en el B.O.P.V. n.º 12 de 20 de enero de 2003, se ha considerado pertinente realizar una pequeña modificación de la citada resolución que concrete que el Anexo B3 será aplicable tan sólo en el caso de que los aparatos estén diseñados conforme a determinadas normas UNE armonizadas, aprovechando, a su vez, la ocasión para corregir un error advertido en el punto 8.1 b) del mismo anexo.

En su virtud, a propuesta del Servicio de Seguridad Industrial, de acuerdo con lo establecido en la Disposición final Primera en relación con el artículo 7, punto 2, de la Orden de 7 de junio de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se establece el procedimiento para la realización de las inspecciones periódicas de los ascensores y para el mantenimiento y conservación de los mismos,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2002ko uztailaren 15eko Ebazpenaren B3 eranskina —EB markadun aparailuen ikuskapena— aldatzea. Ebazpen horren bidez, Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 4. edizioa onartu zen. Aldaketa da tituluaren ondoren eta 1 idatzzatiaren aurretik honakoa gehitzea:

«Orokorrean, igogailuen 95/16/CE zuzentarauaren transposizioa egiten duen abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretuan xedatutako segurtasunerako oinarrizko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

UNE EN 81-1 eta 2 arauen arabera diseinatutako aparailuen kasuan, honakoa egiaztatuko da: »

Bigarren artikulua.– B3 eranskineko 8.1 b) puntua EB markadun aparailuen ikuskapena— aldatzea, hau da, puntuaren azkenengo lerroan parentesi artean egiten den zehaztapena «(beira armatua ijeztu inprimatua da)» kentzea,

Hirugarren artikulua.– Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 4. edizioa onartzen duen Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2002ko uztailaren 15eko Ebazpenaren beste guztia dagoenean uztea.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko irailaren 3a.

Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendaria,
RUBÉN MENDIOLA ERKOREKA.

DISPONGO:

Artículo primero.– Modificar el Anexo B3 – Inspección de aparatos con marcado CE, a la Resolución de 15 de julio de 2002, del Director de Administración de Industria y Minas, por la que se aprueba la edición número 4 del Manual de Inspecciones Periódicas de Ascensores, en el sentido de añadir en el citado anexo, después del título y antes del apartado 1, lo siguiente:

«Con carácter general, deberá comprobarse el cumplimiento de los requisitos esenciales de seguridad del Real Decreto 1314/1997, de 1 de agosto, por el que se traspone la directiva 95/16/CE de ascensores.

En el caso de los aparatos diseñados con las normas UNE EN 81-1 y 2, se comprobará: »

Artículo segundo.– Modificar el punto 8.1 b) del mismo Anexo B3- Inspección de aparatos con marcado CE, eliminando la observación que se hace, entre paréntesis, en la última línea de dicho punto, «(el vidrio armado es laminado impreso)»

Artículo tercero.– Dejar en sus mismos términos el resto de la resolución de 15 de julio de 2002 del Director de Administración de Industria y Minas por la que se aprueba la edición número 4 del Manual de Inspecciones Periódicas de Ascensores.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de septiembre de 2003.

El Director de Administración de Industria y Minas,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

Zk-5549

EBAZPENA, 2003ko urriaren 1ekoa, Ingurumen sailburuordearena, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren 2003ko ekainaren 2ko Agindu bidez eskatutako diru-laguntzak emateko aurrekontua 350.000 eurotan gehitzea erabakitzen duena. Agindu horrek arautu zituen ingurumenaren arloan informazio-, partaidetza- eta sentsibilizazio-ekintzetan diharduten irabazi-asmorik gabeko entitateei ematen zaizkien diru-laguntzak, betiere, ekintzak Garapen jasangarriaren euskal ingurumen-estrategiaren helburuen barruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumeneko esparru-programaren barruan burutzen badira.

Agindu horretako Xedapen gehigarri bakarrak honakoa ezartzen du: «1. artikuluan guztira izendatutako diru zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskatutako

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Nº-5549

RESOLUCIÓN de 1 de octubre de 2003, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que acuerda incrementar en 350.000euros, la dotación presupuestaria destinada al otorgamiento de las subvenciones solicitadas al amparo de la Orden de 2 de junio de 2003, del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, por la que se regula la concesión de subvenciones a entidades privadas sin animo de lucro, que realicen actividades de información, participación y sensibilización en materia de medio ambiente, en el marco de las previsiones de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible y del Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Disposición Adicional Única de la citada Orden establece: «El importe global consignado en el artículo 1 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuan-